


# BERRIGARA

50. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1992, urtarrilak 31



**Gartzela zaharra:  
nork beteko ditu gelok?**



**Kirolari  
buruzko  
azterketa**



**Angiozarko  
auzo eskola**



**Iñigo Igartua  
Munduko  
Txapelketan**

**Zure jaunartze argazkietarako**

**KIÑU**

Barrenkale 35 Tfnoa: 76 58 05





# Beti Modari Begira


**SANDRA ETA MARCO**  
BETAURREKOAK  
**2.550 Pta.**

Betaurrekoen egun eguneko moda zure esku 2.550 pezetatan. Zure begiradaren xarma eragingo duten Sandra eta Marco betaurreko berriak J. LARRAÑAGA OPTIKA bakarrik aurkituko dituzu. Moda eta prezioa zuretzako gertu MULTIOPTICASen optika guztietan.

*J. Larrañaga*  
OPTIKA  
**MULTIOPTICAS**  
Beti Zuri Begira

San Pedro, 22 - BERGARA  
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Barañaran Erparantza, sn - ORDIZIA

BISITA GAITZAZU IRIKI DUGUN  
DENDA BERRIAN  
**IBARGARAI, 16**  
**OPARIBAT**  
DAUKAZU ZURETZAT





# BERRIGARA

## Argitaratzailea:

Jardun Elkarte  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

## Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

## Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

## Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki Arieteleaniz eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

## Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

## Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezar, J. M. Elxepuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezar, Josune Iñarra, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikufia, I. Sorondo eta Josune Sanjuan

## Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

## Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



**San Blas opilak bedeinkatuko** dira astelehenean, goizeko 11tako Mezan, urtero egiten den moduan. Ondoren, salda eta txistorra izango dira bertara hurbiltzen direnentzat. Astebukaerarako berri, igande eguerdirako hain zuzen ere, Mendi Bizikleta Txapelketa iragarrita dago.

## LARUNBATA 1

- **Eskubaloia:**
  - Bergara-Aloña Mendi (kadete neskek), 15.30etan.
  - Bergara-Bidebieta (kadete mutilak), 16.30etan.
  - Bergara-Leizaran (junior neskek), 18.45etan.
  - Bergara-Bizkor (junior mutilak), 20.00etan.

- **Saskibaloia:**
  - Bergara-Eskolapios (kadete mutilak), 17.15etan.

- **Pelota partiduak:**
  - Soroa III-Urra/Arteaga-Retegi IV, Alustiza-Aldazabal II/Salaberria-Errasti eta Iribarren-Alberdi III/

Telletxea-Astarloa. Frontoian 16.30etan

## IGANDEA 2

- **Saskibaloia:**
  - Bergara-Mendiola (senior gizonak), 12.00etan.
  - Bergara-Etxadi (kadete emakumeak), 12.00etan.

- **Eskubaloia:**
  - Bergara-C.A.F (gazte mutilak), 10etan.
  - Bergara-Loiola (senior gizonak), 12etan Arrasatan.

## OSTIRALA 7

- **San Blas jaiak:**
  - Auzo afaria 8.30etan eta ondoren erromeria.

## FARMAZIAK



- 1 Estella
- 2 Estella
- 3 Mozos
- 4 Camacho
- 5 Puy
- 6 Guallar
- 7 Estella

## ZINEA



*El robo de la joya*

- OSTIRALA: 22.30.
- LARUNBATA: 17.00, 19.30 ETA 22.30etan.
- IGANDEA: 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
- ASTELEHENA: 19.30.

*Los rescatadores en Cangurolandia*

- IGANDEA: 11.30.
- Beltenebros*
- OSTEGUNA: 19.30.

## OGIA



Bolintxo

**ANTIA** HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**MAKAILO**  
**ETXEA**

Makallau kazuelak gertatzen ditugu

Ibargaral 15

**ZAPELAITZ**

Taberna

Eguneko menuak astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA





**Nere lagun  
Luis Abajori**

Ariz-Ondo aldizkarian azaldu-takoaren ondorenean, errespeto haundiz. Zure elkarrizketa irakurri ondoren, zein da politikaren beldur izan-go bazifia bezala zertxobait susmatzen dut.

Politika bere izate hutsean ez da txarra, politikaren ona edo txarra izatea zuek politikuok eginen duzue eta, nahiz eta herritarren mesedetarako edo atsekaberako.

Zuk zeuk ere, talde politiko baten zerrendetan aurkeztean nahitanahiez aukeraketa politiko bat egiten duzu.

Ez da ba zilegi, soilik herriaren alde lana egiten duena bezala, "apolitiko-aren" maskararekin azaltzea. Politika mundutik ere, herriaren alde lana egin daiteke eta hori da, hain zuzen ere, herritarrok gure ordezkari zinetotzi lanetan zaituztegunoi eskatzen dizueguna. Bestela, zure lana beste lan esparru batzutatik bideratu behar zenuke, zinetotziak politika egiteko bait zaudete udaletxean eta, zuk zeuk ukatu arren ere, horrela egiten bait duzue.

Aizu Luis, arrazoi haundia duzu herriaren alde lana egiteko ez dagoela alderdi politiko baten afiliatuta egon beharrik diozunean, zeren udaletxean zaudeteneoi mila modutako arazoak aztertzean tokatze zaizuelarik ere, nik

dakidala behintzat, inoiz ez zara PNVren ildo politikotik aldendu.

Nahitanahiez kulturaren ere politika egin beharra duzu eta herriaren mesedetan bada, egin ezazu beldurrik gabe. Nik hemendik herriaren alde lana egitera animatzen zaituz, kultura herrikoia eginaz.

Honenbestez, animo eta aurrera.

**M. Agirre**

**Bonbila asko eta argi gutxi**

Noiz piztuko ote zaie gure politikuoi bonbila?

A ze nolako piloa jarri diguten aurtengo Gabon jaietan, eta gero guri, oinezko herritar gizarajuoi energi aurreraketa eskatuz etorriko zazikigu, baina hura beste kanpaina bat izango da. Telebista nahiz irratia piztu orduko, "gaurko tenperatura hau duzue, eta berogailua halako ordutatik halako ordutara piztu beharko da" zenbait horrelako esango digute.

Bitartean, hartarako edo hontarako, dirua poltsiko beretik.

Ez ote dute gure agintariak ideia argiagorik?

Petrina estutzeko iritsi zaizkigun garai hauetan, hainbeste langabezirekin, eta gehituaz doan gaitz horren aurka, norbaitzui diru horrekin lana ematea ez ote litzateke hobe? Bi txori izango lirateke gainera tiro bakarrarekin, herritar batzuei beren familientzat sostengua eta herrirako lan bat egitea.

Edo gabon jaiak beren familien-gandik urrun pasa beharrean aurkitzen direnentzat eman,...

Era honetara, gutxi batzuri bada ere, egun hauek zoriontsuagoak izaten lagunduko genieke.

**A. Larrañaga**

**OHARRA:** Daukagun eskariagatik gutunel leku haundiagoa ematea erabaki dugu. Hala ere, gogoratu behar dizuegu denek tokia izateko, ezin izango direla 20-25 lerrokoak baino luzeagoak izan eta bidaltzailearen izen-abizenak eta, eduki ezkerro, telefonoa eman beharko dela.

**Tiiira ba!**



**Josu Okina**



### □ Argazkia

*Bergarako Udalak eta Pol-Pol Argazki Taldeak* otsailaren 17tik 28ra bitartean emango den *argazki ikastaroa* antolatu dute. Ikastaroaren ordutegia arratsaldeko 7ak eta laurdenetatik 9etara izango da eta plaza mugatuak dira. Matrikula 2.500 pta. da, ikasle eta langabetuentzat 1.500 pta.koa izango delarik. Interesatuak Kultur Etxera jo dezakete izena emateko.

### □ Odol emailleak

*Gipuzkoako Odol Emalleen Elkarteak* Bergaran diren odol emallei dei egiten die asteazkenean, otsailak 5, arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean Seminarioan duten lokalean egingo den odol ematean parte hartzeko.

## Udalak kirolari buruzko azterketa soziologikoa egingo

Begarako Udala kirolari buruzko azterketa soziologikoa egiteko akordio batetara heldu da UNEDeko Soziologia Sailarekin. Horrela, soziologia ikasten diharduten hainbat ikasle, Carlos Vilches soziologo eta irakaslearen zuzendaritzapean, bergararren giza-kirol ohitura eta beharrei buruzko azterketa egingo dute. Kirol Bartzordeko arduradunen lehenbiziko asmoa azterketa hau bailara mailan egitea bazen ere, zenbait herritan jadanik egina zegoenez, herri mailan egin beharrean izan dira.

Azterketa sakon honen kirola praktikatu eta praktikatzen ez dutenen ezaugarri giza-demografikoak, kirol ihardueretikiko jendeak duen jarrerara edota instalakun-



tzen kalitatea eta hobe-kuntza posibleak jakitea izango du helburu nagusia.

### Laster hasiko dira

Miloi bateko aurrekontuarekin, azterketa lehen bait lehen jarriko da martxan; 700 inkesta

inguru egingo dituzte UNEDekoek eta, behin guztiak aztertuz gero txostena aurkeztuko diote Udalari. Hortik abiatuta, aurrerantzean kirol gaiei buruz hartu beharko diren erabakietan benetazko beharren jakinean egongo da Kirol Bartzordea.

## Auzoetako jaiak martxan

Hasi dira *Begarako auzoak* bere jaiak ospatzen eta, astebukaeran San Blaskoen txanda izango bada ere, joan den astean *Uberako San Pauloak* eta Angiozarko *Parteittiko San Bizente* jaiak izan ziren. Parteittin, argazkian ikusten den bezala, jende ugari bildu zen igandean Meza Nagusiaren ondoren salda eta txorizoa hartzeko. Uberan ere jaigiro aparta izan zen; aipagarri Joseba Arietaleanizek Mendi Bizikleta Txapelketan lortu zuen garaipena eta, era berean, haurren antzerki emanaldia eta nagusiek eskeinitako pelota partiduak.



*Pepelu*  
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

**LITXAR**  
Kruasantegia

• Gosariak • Askariak  
• Hanburgesak / Sanwichak /  
Plater konbinatuak / Pizak  
Fraiskozuri 4 Tfnoa: 76 55 45

**ONGI ETORRI**  
Jatetxea

Tfnoa: 76 63 49,  
ANTZUOLA



□ **Plenoa**

Astelehenean egindako Plenoan *Bergarako Udalak*, udal langileen soldata komenioa onartu arte % 5 igozteza onartu zuen. Horrez gain, idazkari posturako oinarrietan, Udaletxeak euskarari eman diezaiokeen puntuaziorik altuena baloratzeko akordiora heldu zen. Deba Ibaiaren bideratzea burutzeko Udalak Unzeta jaunekin terrenu batzuk jasotzeko sinatutako komenioa ere onartu zen eta, azkenik, EAJ, EE eta PSOeren aldeko botuekin Javier Gabilondo izendatu zen Udaletxearen ordezkari Suradesan.

□ **IMI**

Bergarako *IMI*ren bulegoak otsailaren 10tik 14era bitartean emango den *MS DOS* izeneko ikastaroa iragarri du. Ohizkoa denez, bertan parte hartzeko lehenbizi matrikula eskakizuna egin behar da.



**Amorrrainak hazten**

*Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarateak* jaso du jadanik *Gipuzkoako Diputazio* arengandik urteroko amorrrain arraultza pilo. Aurten goan 33.000 amorrrain arraultza inguru jaso dituzte *Oilagor* rakeok eta, igeltseritza zaharrea duten amorrrain haztegia egindako berrikuntzen ondorioz, behar den neurrikoak izan arte bertan haziko dira. Maiatzekain aldera berriz, *Diputazio* ko bi zaindariren kontrolpean, *Bergara* eta inguruko hainbat errekatan banatu ahal izate-

ko. *Oilagor* rakeoen eritiziz, honako lan honi esker oraindik amorrrainak harrapatu ahal izango dira *Bergaran*.

Martxoaren 15ean arrantza garaia zabalduko denez, *Oilagor* rakeok uste dute, iaz bezala, erreketan *Diputazio* ak neurriko amorrrainak botako dituela. *Elkarateak*, era berean, dei egiten du lizentzia atera nahi dutenak, otsailaren 7tik 29ra bitartean, elkartetik pasa daitezten astelehenetik ostiralera arratsaldeko 7 t'erdietatik 9etara.

□ **Asanblada**

*Bergarako Herri Batasunak* dei egiten die alderdikide guztiei, *Urrats Berri* prozesuarekin jarraituz, asteartean, otsailak 4, arratsaldeko 7 t'erdietan *Arrano Elkaratean* egingo den asanbladan parte hartzeko.

□ **Lan istripua**

Asteartean izandako lan istripu batengatik ostegunean hil zen *Manuel Gomez Marquez* T.T.T. enpresako 47 urteko langilea. Azido batek eraginda, 2. eta 3. graduko erredurak jasan zituen. Goian bego.

□ **Ikasleen jaia**

Urtero bezala, gaur ostirala *Bergarako Ikastetxe Ertainetako ikasleek* jai eguna izan dute; *Santo Tomas* en omenez batzuek eta *San Juan Boscoren* omenez besteek guztiek jai egin dute.

**TOKI-EDER**  
**Taberna**

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**KONDE**  
**PANADEROKUA**



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

*Berogailu, gas eta iturgintza azterlanak*

*Bainu diseinaketa*

**ZABETX**  
**INSTALAZIOAK**

Mahasterreka 14, Tfnoa: 76 54 14. BERGARA





## Fatxadak berriztu

*Diputazioko Hirigin-tza eta Arkitektura Sai-lak* eta erreabilitazio plangintzak aurrera eramateko Deba Garaiko Mankomunitateak sortu duen *Suradesa Elkarteak* bultzatuta, herri-barru historikoko fatxadak berriztatuko dira. Hasiera batetan, plangintza hau San Martin Plazara bakarrik mugatzeko asmoa zegoen. Hala ere, Udaltxean egin behar diren obregatik eta herri-barru osoa interes sozialeko gunea dela ikusirik, plangintza horri Barrenkaletik emango zaio ha-

siera. Suradesak datozen hiru urteotan jestionatu-ko duen plangintza honetan parte hartu nahi duten etxebizitzak jabeek lehenbizi eskakizuna egin beharko dute. Jabeek era guztietako erreztasunak izango dituzte berriztatze lan hauek ordaintzerakoan, aurrekontuaren % 50eko dirulaguntzak ere jaso ahal izango dituztelarik. Udalak arkitektu baten eta hiru margolariren aholkularitza jasoko du, fatxada guztiek, itxura eta pinturaren aldetik nolabaiteko batasuna izateko.

## Txinpartak

✓ Fiskalak urtebeteko espexeratzea eskatu zuen joan den asteartean, 90ean Arrasateko kaletan izandako istilu batzuegatik, Bergarako epaitegian epaitu zituzten 13 gazteentzat, *A. Curado* bergararra tartean. Epaiketa hilaren 25ean jarraituko da.

✓ Pasa den ostegunean, *Gandhiren* hilketaren urte-muga zela eta, Monja Zaharretako Elizan *Pakearen Aldeko Eukaristia* ospatu zen.

✓ Asteartean, otsailak 3, bukatuko da *Jai Batzordeak* aurtengo karnabaletarako antolatutako *Kartel Lehiaketarako* lanak aurkezteko epea.

✓ Euskadi eta Espainiako txapelketak lortu ondoren, Udaleko *Gobernu Batzordeak* *Iñigo Igartuari* omenaldia egiteko erabakia hartu du.

✓ *Bergara Igeri Elkarte*ko 7 igerilarik hartuko dute parte astebukaera honetan Leioan jokatu den *Euskadiko Infantil Mailako Txapelketan*.

✓ Antzuolako *Amnistiaren Aldeko Komiteak* larunbatean, otsailak 1, zine-aretoan egingo den asanbladan parte hartzeko dei egiten du. Asanblada ondoren afaria izango da Jubilatuen tabernan.

✓ Antzuolan ere, *Gazinemak Los dioses deben estar locos* filmea iragarri du datorren ostiralera-ko, hilak 7. Gaueko 10etan, zine-aretoan.

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparatek...

Amillaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

- Iturkintza
- Berogintza
- Gasak

Amillaga 1  
(B pabilola)  
BERGARA

Tfnoa:  
76 28 04





## Gartzela zaharra berriztu da

**Bergarako gartzela zaharra, 60ko hamarkadan itxi zena, Deba Garaiko Mankomunitatearen ardurapean dagoen Lantegi Eskolako ikasleek berreraiki dute. Urte t'erdi inguru iraun duen obraren aurkezpena joan den astean egin zen udaletxeko pleno aretoan. Espetxe zaharrari emango zaion erabilpenari buruzko erabakirik ez da hartu oraindik; hala ere, kultur ihardueretarako edota herriko kultur taldeen egoitza modura egokitu daitekeela entzun dugu.**

Joanden astean udaletxeko pleno aretoan eginitako aurkezpen ekitaldian, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Gobernu Batzordeko zinegotzi batzuk, Jose Maria Loiti Deba Garaiko Mankomunitateko Presidentea, Sabino Martiartu Lantegi Eskolako zuzendaria eta Pedro Ustarroz INEMeko Gipuzkoako arduraduna izan ziren.

Victoriano Gallastegik, Lantegi Eskolako ikasleek egindako lana eskertu ondoren, bere mahaikideei eman zien hitza. Sabino Martiartuk, berriz, berak zuzentzen duen eskolaren helburua, gazte langabetuak eraikuntzen berregokitze eta ingurugiroari buruzko lanbideetan kualifikatzea eta enpresetan kolokatzea zela, adierazi

zuen. Pedro Ustarrozek, azkenik, Bergarako gartzela zaharraren konponketan egindako lana goraiatzeaz gain, Lantegi Eskolen funtzio soziala azpimarratu zuen.

### Bi urteko lana

Begarako Udalak eskaturik, 1.990eko otsailan hasi ziren gartzela zaharreko berregokitze

lanak. Anselmo Iñurragi arkitektoaren egitasmoa, Mankomunitateko Lantegi Eskolako igeltsero, iturkin, elektrikari eta arotzek, 40 gaztek denetara, burutudute, Sabino Martiarturen ardurapean. Ia bi urte lanean eman ondoren, gartzela barrua, 16 zeldak, patioa eta bobeda, eta kanpokaldea berriztu dira.

Errestauraziorako erabili diren materialak, Bergarako Udalak ordaindu ditu (ia 20 milioi) eta Lantegi Eskolako ikasle, teknikari eta irakasleen soldatak, ostera, INEMek (ehuneko 75a) eta Mankomunitateak (gainontzeko ehuneko 25a). Anekdotak modura esan dezagun berriztu den gartzela Bartzelonako Modelo ospetsuarekin batera Estatuan eraiki zen lehenetariko espetxe zeldaduna dela.

### Lantegi Eskola

Deba Garaiko Udal Elkarteko Lantegi Eskola, orain dela hiru urte jarri zen martxan. Tarte horretan, 18 eta 25 urte bitarteko 100 langabetu inguru ibili dira lanean. Hiru ikasturteok, sei faseetan banatu dituzte eskolako arduradunek: lehenengo bost faseetan, ikasleek, ematen diren bost espezializateak ikasi dituzte, alegia, igeltse-

## Etxenagusia

**Berezitasunak:**

kremazko kafea eta paella Valentziako erara

Bidekurutzeta 9, Tfnoa: 76 20 08

## TXUKUN

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

## Tximak

*Ileapaindegia*

Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69



rotza, arozteria, iturgintza, instalazio elektrikoak eta lorazantza. Azkeneko fasean, ikasle bakoitzak gustoko zuen espezializatea hautatu duelarik.

Ikasketek, bere alde teoriko eta praktikoa izan dute: goizean lau ordu teoria ikasten eta arratsaldean beste lau ariketa praktikoetan. Alde praktikoari dago-kionez, bi izan dira burutu dituzten lanak: alde batetik Arrasateko MCMko lantegi zahar-raren berregokitzea (Lantegi Eskolako egoitza bertan kokatu da) eta bestetik, Bergarako gartzela zahar-raren errestaurazioa. Bi obra horiek egiten, igeltsero, arrotz, elektrikari eta iturkinak aritu dira, lorazainak beste lan batzuetan ibili direlarik (Deba Garaiko Mankomunitatea osatzen duten herrietako lorategiak txukuntzen, e.a.).

Lantegi Eskolan 100 gazte hasi baziren ere, hiru urteko ikasketak 52k amaitu dituzte. Gai-nontzeko 48etatik 28k, eskolatik kanpo lana topatu dute eta beste 20k, arrazoi ezberdinegatik ikasketak utzi dituzte. Orain dela hilabete bat, Gabonetan, ikasketak amaitu zituzten 52 gazteetatik 12 inguru, une batetik bestera kolokatu-tuko dira eta geratzen

direnekin gauza bera egiten ahaleginduko dira eskolako arduradunak. Sabino Martiartuk azaldu digunez, "lan garrantzitsuena orain egiten ari gara, eskolako helburu nagusia langabezia dauden gazteei, lana topatzea bait da. Hiru urteok ikasten eman ondoren ondo prestatuta daudela uste dugu".

Lantegi Eskolak 284 milioitako aurrekontua izan du hiru urtetarako. 212 INEMek ordaindu ditu eta 72 Mankomunitateak. Aurrekontuaren ehuneko 70a, 200 milioi inguru, zuzendari, administrari, irakasle eta ikasleen soldatak ordaintzeko bideratu dira (ikasleek, 34.000 pezeta-ko soldata jaso dute).

Martxotik aurrera kurtso berriak antolatuko

dira. INEMen erantzunaren zain, Lantegi Eskolan Deba Garaiko 800 gazte daude izena eman da.

### Kultur Ihardueretarako kokagune

Gartzela zaharrari eman behar zaion erabilpena erabakitzeke dago. Berregokitze lanak hasi zirenean Bergarako margolarien kokagune bihurtzeko asmoarekin ekin ziren, baina pintoreek ez dute tokia begi onez ikusten, espazio faltagatik batez ere. *Berrigara* eta *Ariz-Ondo* errebisten egoitza izan daitekela entzun dugu... Direnak-direla kultur ihardueretarako erabiliko da ziurrenez.



Bi urte inguru berrizketa lanetan jardun ondoren joan den ostiralean, hilak 24, Deba Garaiko Mankomunitateko Presidenteak, Jose Maria Loitik, Bergarako alkateari eman zion gartzelako giltzak. Erdian, Sabino Martiartu.

## Espetxe historikoa

**B**erriztu den gartzela oso ezaguna da, batez ere, Angiolillo anarkista, Canovas del Castillo monarkikoa Santa Agedan hil zuena, bertan hil zutelako. 1.879ko abuztuaren 20an hil zuten iraultzaile suizarra, Bergarako espetxean burututako azken urkamena izan zelararik.

Bergarako gartzela joan den mendeko azken hamarkadetan eraiki zen. 1.866an Udal Batzarrak, herriko eskolekin batera gartzela eraikitzeko egitasmoa Carlos Uriarte arkitektoari enkargatu zion. Lanen aurrekontua 440 mila errealekoa izan zen.

100 urte inguru zabalik egon ondoren, 1.964ean itxi zituen ateak. Harrezkero eta gaur egun berriztu den arte, abandonaturik egon da. Gaizkileak zigortzeko eraikitako etxea, kultura kokagune bilakatuko zaigu lasiter.

## TOKI-ONA

### Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -  
Txitxizotzak-Kazolatxoak-  
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

# Kabia

## Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE




**E**leiz kontuan Uberako San Paulo berri samarra da. Joan den gizaldian lortu zuen apaiz bat bertan bizitzea, eta 1.927 garren urtean Elgetatik Bergarakoa izatera pasa zen, Angiozarrekin batera. Hala ere, bazegoen lehendik bertan ermita zaharrago bat.

Aldare nagusian, ezker-eskubi, Okina margolariaren muralak zegozen, baina tamalez oso hondatuak: bat Jaunaren Igokundearena eta bestea San Pauloren Bihotz berritzearena. Badauka San Pedroren irudi eder bat ere errenazimendu garaikoa. Elgetara dihoan bide bazterrean, Martokua izeneko etxeko horman, harrizko iruditxo bat sartuta dago, Santiago apolostuarena seguru aski. Ondoan Santutxu bat dago, eta bere irudia, San Paulorena, Martokua etxean gordetzen da.

Uberako San Pauloren lehendabiziko datua 1.625. urtekoa da. Hala ere, esandako irudiak er-

# Uberako San Paulo



*Uberako San Paulo eleiza dagoen tokian, antzinan ermita bat zegoen. Eleizaren aldare nagusian, Okina margolariaren muralak zeuden, baina zoritxarrez oso hondatuak: bat Jaunaren Igokundearena eta bestea San Pauloren bihotz berritzearena.*

mita zaharrago bat bazela adierazten dute. Ezin liteke ziurtatu bi eta bi lau diren bezela, ez eta gutxiago ere, eta kasu batzuek bere muga berririk aterako lirateke, baina neurri batzuk ipini litezke zeintzuk diran ermita zaharrak eta zeintzuk berriagoak adierazteko. Adibiderako, Loiolako San Inazioaren ermita bat ezin liteke 400 urte baino zaharragoa izan, bere debozio eta santutasunaren urteak kontuan harturik.

Askotan, Jaunaren eta Andremariaren izeneko ermitak aspaldikoak izaten dira, bai eta Apostoluenak eta kristautasunaren lehenengo gizaldietako martiri eta santuenak ere. Bergaran asko daude horrelakoak, eta Apostoluenak bost ermita izandu ziran edo mantentzen dira: Santo Tomas, San Bartolome, San Andres, Santiago eta Uberako San Paulorenak. San Pedroren eleiz nagusia, gañera.

*Imanol Sorondo*

## ITXASMENDI

### Taberna

Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
BERGARA


### ileapaindegia

eder gela

### disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

# AE



ARRASATE .

## ELKORO ANTENAK

✓ TB Satelite bidez

✓ Telebanaketa

Tfnoa: 79 18 86



# Angiozarko eskolan, umeak etxe ondoan ikasten

Ez dira asko Bergaran geratzen diren auzo eskolak. Garal batean, Matxiategi, Labegaraleta, Martoko, San Lorentzo eta abarretako haurrek beren etxe ondoan ikasten bazuten ere, gaur egun, Angiozar, Ubera eta Osintxuko haur eskolak bakarrik geratzen dira. Aranzadi Ikastolak eta San Martin Ikastetxe Publikoak eskolaurreko gela bana daukate Martokuan.

Angiozarko eskola, Uberakoa, Osintxukoa eta Martokokoa bezala, Gipuzkoan diren 25 eskola txiki edo bakunetarikoa bat dugu. Gipuzkoako eskola txiki guztiak bi taldetan banaturik daude: Tolosaldekoa alde batetik, eta Zarautzekoa bestetik. Angiozarkoa, Zarautzeko taldearen barnean aurkitzen dena, gertuagotik ezagutu nahi izan dugu.

Eskola txiki edo bakunak, irakasle gutxiko ikastetxeak dira. Gehienetan irakasle bakarrek dira eta nekazal giroan kokaturik daude. Angiozarko eskolako irakaslea Anselmo Vega «Mito» dugu, zazpi urte eman ditu bertako haur txikiekin: "Zamorako herri txiki batean jaio nintzen eta beti egin zait atseginago Angiozar bezalako herri txikietan irakastea, gune urbanoetako ikastetxe masifikatuetan baino heziketa aberatsagoa ematen dela uste dudalako. Nekazal giroko eskoletan, gainera, naturarekin harreman

hurhilagoak ematen dira. Hemengo haurrak, urtaro ezberdinetan ematen diren ingurugiroaren itxura aldatetaz zuzenago ezagutzen dituzte: neguan elurra, udaberrian loreak..."

## Metodologia berezia

4 urtetik 8 urtetara bitarteko 10 haurrekin lan egiten du; beste ikastetxeetan ez bezala Mitoren eskolan eskolaurreko eta Oinarrizko Heziketa Orokorreko 1go, 2. eta 3. mailako haurrak elka-

rrekin ikasten dute: "gezurra badirudi ere, hori oso positiboa da txikiek asko ikasten dutelako haundien-gatik. Batez ere, nagusiekin egiten dut lan, eta horiek gazteei erakusten diete. Haur txikiek haundiek egiten dutena imitatzen dute, hortik asko ikasten dute, oso aberasgarria da. Bestalde, elkar errespetatzen ikasten dute, nagusiek txikiak errespetatzen dituzte".

Mitok metodologia berezia erabiltzen du irakasteko, Aranzadi Ikastolan izan ezik Bergarako beste ikastetxee-

tan erabiltzen ez dena, alegia: Txokoen sistema, Donostiako Amara Berri ikastolan orain dela zazpi urte ezagutu zuena: "eskola txoko ezberdinetan banatzen dut, adin ezberdinetako haurrekin lan egiten dudalako. Antzerkia, inprimategia (4 eta 5 urtekoek hizkiak ikasteko), margotegia, liburutegia (Oinarrizko Heziketa Orokorrean dauden haurrek hizkuntza lantzen dute), zenbakien txokoa, dendaren txokoa (produktuak saldu eta erosiaz diruaren balioa ikasten dute)...".

Eraikitzen ari diren eskola berriko lanak bukatu bitartean eleizaren ondoan dagoen lokaltxo baten ikasten dute Angiozarko haurrek. Hamaika t'erdietan, egunero-egunero, elizpera irtetzen dira errekreora. Batek baloia, besteak tenisaren jokatzeko raketa... Umeen algara alaien artean utzi dugu Mito, Zamoran jaio arren euskara primeran hitzegiten duen 37 urteko angiozartarra.



Mito, bere haurrekin Angiozarko eskolan. Aste honetan notizia iturri izan dira, Euskadi Irratikoek entrebistatu zituztelako.

Mugica

Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa: 76 51 65

MINER

ardak

Ardo onak,

jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



## Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negoio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**FS**  
oto istema

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

**IGARZA**

**MERZERIA**

**LENZERIA**

D. IRALA 5


Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

**BRIKOLAIA  
AUTOMOZIOA**

**Turismoak,  
kamioiak, etab.**

Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

## Astebukaeretan kalean lehen beste jende ibiltzen da?



**Joe Mc Neill**  
25 urte, irakaslea

Urte batetik hona asko jaitsi da. Ostiral gauetan, esaterako, ez dabil inor. Jendea Oñatira joaten dela uste dut.



**Ana Etxaniz**  
27 urte, langilea

Asko bajatu da, Txibisto itxi dutelako, beharbada...




**Amaia Txintxurreta**  
19 urte, tabernaria

Pila bat jaitsi da. Tabernan lanean nagoenean eta kalera irtetzen naizenean nabaritzen dut.



**Juan Miguel Fernandez**  
32 urte, langilea

Ostiral gauean, batez ere, eta krisiaren eraginez, lehen baino jende gutxiago ikusten da.



**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 48 51

**DEPORTIVO TABERNA**

Tfnoa: 76 01 51





## 92a eta prezioak

92. urtean sartu berri gara eta hemendik urtebetera aurtengo balantzea egiteko ordua iritsiko zaigu. Hainbat gauza prestatzen ari direnez 92.rako, hemendik 12 hilabetera ez dakit non, nola eta zein egoeratan egongo garen, baina gertatutakoaren arabera, joan zaigun urteari buruz hitz egiteko gogoia edukiko dugu, eta alde zurrerik ikusita, hitz kritikoak ere aterako dira gure ahoetatik. Bitartean, esan bezala, 92an, hain beste aipaturiko urtean, sartuta gaude, eta momentuz ez da gure aldekoa izan, arlo batzuetan behintzat. Hor dago prezioen igoera (gasolina, autobusak, elektrizitatea, tabakoa eta abar); hor jarraitzen dute euskal industriaren arazo serioak ere, eta hor dago biolentzia ere.

Horrekin batera, aurrera dihoaz Sevillan Expo 92rako prestakuntzak; gauza bera Bartzelonan Joku Olinpikoetarako eta Madrilan hasia da "Madril. Hiri Kulturala"ren egitarau zabala. Milioiak eta milioiak inbertitu dira guztia aurrera ateratzeko asmoz, eta ez dakit kasu guztietan fruitu positiborik emango duen inbertsio horrek. Sevillan hain zuzen, eta azpiegituraz ari naiz, badirudi gauzak ez dihoazela nahi bezala. Hori bai, prezioak ez hurbiltzeko modukoak jarri dira. Askorentzat, nahiz eta aurtan Sevillatik pasatzeko gogoia izan, ezinezkoa izango da amets hori betetzea, batzuek inolako lotsarik gabe "Expo" iraungo duen 6 hilabete horietan "bere abuztua" egitea pentsatu baitute.

**Ane Miren Lizarralde**



## Zorionak!

Badirudi azken boladan Bergarako kirolariak sasoi onean daudela eta hau frogatzeko bi eredu azpimarratuko nituzke, Jose Mari Zezeaga pelotaria eta Iñigo Igartua txirrindulariarenak.

Uberako atzelaria profesionalen binakako txapelketan final erdian dago eta pasa den asteburuan, Bergarako udal pilotalekuan irabazi ez arren ikusmin izugarria sortu zuen, Bergarako frontoia leporaino betez, eta hori ez da gutxi. Iñigo Igartua ere denboraldi bikaina ari da burutzen, Euskadi nahiz Estatu mailako txapelkun da eta nazioarte mailan ere emaitza onak lortu ditu Zubietakoak. Ea beste berri pozgarri bat ematen digun asteburu honetan munduko ziklo-kross txapelketan.

Baina, bi hauez gain, badira Bergaran beste kirolari eta kirol elkarte batzuk ere egunero lanean gogor ari direnak, hauek horrenbesteko oihartzunik izan ez arren, lan asko egiten ari dira eta gainera, emaitza bikainak ari dira lortzen: hortxe ditugu bergarako igerilariak Gipuzkoako Txapelketan taldeka bigarrenak, saskibaloian senior mailan lehen postuan, futboleko bigarrenak, eskubaloian, txirrindularitzan, e.a.

Baina emaitza hauek ez dira kasualitate hutsa izan, zeren orainarte, jende askok lan izugarria egin du, eta nik, lerro hauetatik zoriondu nahi nituzke gure herriko kirolari eta kirol munduan ari diren borondate oneko pertsona eta erakunde guztiak.

**Mikel Elkoroberezibar**

## Enebada

Sukalde, mahai eta  
etxerako artikuluak.  
Oparigaiak

Mahasterreka 19, Tfnoa: 76 46 53


## Kiroldegiko Taberna



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41

## ERROTA - GAIN

### Aluminioak



- **Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.**
- **Galdaragintza orokorrean**

Labegaraleta - Hazkarruntz Auzoa Tfnoa; 76 32 40  
**BERGARA**



# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# ARDATZA

brikolaketa

Ateak eta horma-armairuak

Mahasterreka 4  
76 18 93

# ANDIZY

ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA

Azulejo erakusketa • Onduline  
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C 1 B Pab. Tfnoa: 76 01 41

Faxa: 76 (0) 58 BERGARA

# Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

## Ospea areagotuz

Urrun heldu da bai Bergarako Orfeoiak, Aritzeta Abesbatzak eta Musika Eskolako Orkestak Gabonetan eman zuten kontzertuaren oihartzuna. Bergaratik kanpo ere izan dute kontzertu haren kalitatearen berri eta, zenbaitzuk, musika talde bergarar hauen atzetik ibili izan dira ordutik, beraien *fitxaketa* lortu nahirik. Orain pare bat aste Orfeoia eta Orkesta Elgoibarren izan baziren, larunbatean, otsailak 1, gaueko zortzi t'erdietan Gasteizko Karmengo Eleizan eskeiniko duten kontzertuan berriz ere hirurak izango ditugu eszenategian. Eta kontua ez da hor amaitzen. Kataluinan jotzea eskeini dietela ere jakin izan dugu ta. Olinpiaden hasiera egunerako izango ote?



## 20 urteak ospatzen

Berrogei bat lagun bildu ziren joan den larunbatean Antxoni jatetxean **Begarako Igeri Elkartearen 20. urteurrena** zelebratzeko. Entrenadore eta direktibo izandakoak, igerilari ohiak, gurasoak ere bai, konzentraziotik ihes egitea lortu zuten oraingo pare bat igerilari... Elkartearen historiari eta afarian zerbitu zietenari ere errepasso ederra eman zieten denen artean. Zorionak!

# ederJU


ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA





□ **Zalantzarik gabe**

**Koldo Lizarralde** antzuolarrak eta **Fran Iturbe** bergararrak osatzen duten **La Duda** taldeak **Euskadi Gazteak** konbokatutako **1.º Maketa Lehiaketan** akzesita lortu dute, epai-mahiak "pop talderik onena" tzat bereiztu dielarik. Guztira, Euskal Herri guztiko 200 maketa inguru aurkeztu izan dira lehiaketa honetara baina antolatzaileek, itxuraz, ez dute zalantzarik izan **La Duda** aurkeztutako lana apartatzeko. Orain, martxoan hasiko dute **jiraxoa** prestatzeari ekingo diote Zabalotegin duten lokalean



**Zertan dihardute ba?**

**ELI PAYROS**



Bergarako Udalak albaitaritza ikasketak burutu zituen 26 urteko bergarar hau kontratatu berri du euskararen erabilpena bultzatzeko abenduan sinatu zen hitzarmenaren jarraipenez arduratzeko.

**AGUSTIN ARANZABAL**



Joan den igandean 18 urteko bergarar honek bere lehen gola lortu zuen Real Sociedad B taldearekin Atotxan Sant Andreu liderraren aurka jokaturako partiduan, donostiarrek 2 eta 1 irabazi zutelarik.

**IZADI**  
**Sanitiveri** PILI GISASOLA  
 Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua  
 Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**Z**umelaga  
**JATETXEA**  
 San Antonio 5 BERGARA  
 Tfnoa: 76 20 21

**ezpeleta etxea**  
 Harizko eta kotoizko goimalako izara eta mantelak  
 Barrenkale 44 BERGARA



## Izkirimiriak

Ona emen Udalaizera igotzen izan naitzen bakoitzean Kanpazarko ardandegiko Pantxika ondo ezagunarekin edukitzen nuen elkarrizketa, edo obeto esateko bere bakkarrizketa atsegiña.

"I intzen?... luzeiritzitta ninguan!... Zer dioxozue "Berga" alde orretan?... ondo bizi zarie?... euririk eta eittetsue?... emen beartuko geukek apur bategatik!... Goraiño igo biok?... politto ibili akit!... gaur goxien beardixetara juen naze-nien arri-soiñu ona jerabixen bai igotzen azen arru orretan!... Bai! sartuik motua barrura... itxik euk gura duan lekuen, gura bok kortan ta gurabok ementxe pasilluen... Ez! etxok trabarik eitten... gaur nor etorriko dala pentsetan dok ba?... a-tsalde guztien euri begira egongo gariela ala?... guk solora juen biar juagu... ik zer

pentsetan dok ba?... danok ire morukoek gariela?... gu pobriak gaituk eta lana ein biar juagu... Andriek zer jixok?... asko pozketan nok!... Ondo andra polittok a!... Bueno, atorrenian atia itxitta topetan bok eik ulu bat, or ibilliko nok or orrenbaten... Bai!... juen Aingeru Guardiez eta gero arte!... Ondo juen!...

Il zan gure Pantxika ona baiña bere gomuta atsegiñak beti iraungo du ezagutu genuenon artean. Nere gaurko izkirimiritxo au bere omenenez egin nai izan det, ez bait dakit ezer hoberik egiten.

Ez, ez zaigu aaztuko andre bikain aren begirakune leiala ta bere gorputz urtetsuak estaltzen zuen neskatillatxoaren arimak jalgitzen zuen izketa tolesgabea. Izan ere, bere takarkerian auxe besterik ez bait-da "Mundrautarra" izatea.

Txomin Amasorrain

## Antzinako kontuak

### Deba ibarra hirien sortze garaian

Deba ibarra izan zen Gaztela eta Gipuzkoako kostaldearen arteko harremanak sendotzeko erabili zen bide nagusietariko bat. Komunikabide naturala den ibar honek Mutriku eta Getaria-ko portuak izan zituen itsasorako irteera.

Honen ondorioz, alde honetan sortzen ziren lehenengo hiriak kostaldekoak izango ziren. Geroago, eta komunikabide berari jarraituz, beste hiri batzuk sortuko ziren. Hauen artean, bere garrantzi ekonomiko (gatz) zein estratejikoarenatik, azpimarratzekoa da Leintz-Gatzaga.

Beste alde batetik, Arrasate eta Bergara ere aipatu behar ditugu, hauek, jendea ibarraren behealdean batuz, Deba erreka-aren bazterrean bertan kokatu ziren.

Gainera, Gipuzkoako alde honetan aurkitzen dugu lurraldearen biz-

tanleria dentsitate-rik altuenetarikoa. Biztanleria, Erdi Aroan eta orain arte mendi magaletan herri txiki eta sakabana-tuetan banatuta egon dena, orain, astiro astiro, ibarraren behealde-ara jaisten ari da, agian, ekintza berrientzat leku egokiago bat bilatu nahian.

Deba alde honen erakarpeneren arrazoi bat bere kokapen estratejiko-koa izan liteke. Ibarra, Gipuzkoa eta inguruko lurren arteko komunikabideen topagunea da eta izan da betidanik- hemen elkartzen dira eta Gipuzkoarekin, Bizkaia, Araba eta Oñatiko lur-rrak.

Ekonomia bestalde, ibarrak eskeintzen dituen ur baliabideak erabiltzera bideratuko da, burdingintzarako hasieran eta oihalgintzarako geroago.

Amaia Basterretxea

Cristina

Bergara  
Piel

Harruriaga z/g Tfnoa: 76 03 04

Espaloia 6 Tfnoa: 76 20 70

Beherapenetan gaude.

Etor zaitez!





# Iñigo Igartuak inoiz baino aukera gehiago

*Iñigo Igartua* txirrindulari bergararrak inoiz baino posibilitate gehiagorekin egingo dio aurre larunbatean, otsailak 1, Leedsen (Inglatera) jokatu den *Munduko Ziklo-Kross Txapelketari*.

Espezialista gehienak bat datoz eritzi horrekin Iñigo denboraldi bikaina burutzen ari baita negu honetan. Aurten egin duen presakuntza bereziari esker, garbi utzi du Estatuko espezialistarik onena dela, guztira zazpi garaipen lortu bait ditu, Euskadi eta Espainiako Txapelketak tartean. Horrez gain, Superprestijioan ere, proba bakar baten faltan, 17. postuan sailkatu dugu.

Hala ere, Iñigok ez du konfiantza gehiegirik nahi; "hamar lehenengoan artean sailkatzea da nere asmoa. Belgikako selekzioarekin en-



*Iñigo Igartua Euskadi eta Espainiako txapelketetan lortutako trofeoekin.*

*trenatu ondoren forma aldetik oso ondo nago baina txekoak, italiarrak... arerio gogorrak dira".* Bergararra asteartean abiatu zen abioiez Leedsen, larunbatean 4retan izango den lasterketa horretako zirkuituan entrenatu eta aklimatatzeko asmoz. Zirkuitua Zarautzekoaren antzerakoa omen da.

## Pronostikoak

**Txutxi Izkara**  
*Selekzionatzailea*

Lehenengoa izatea nahiko nuke, baina bost lehenengoan artean sartuko balitz ere oso pozik geratuko ginatke.

**Jose Mari Yurrebaso**  
*Txirrindularia*

Denboraldian zehar nola ibili den ikusita, lehenego 10-15en artean sartuko da.

**Pedro Igartua**  
*Iñigoren aita*

9. sailkatuko dela uste dut. Ondo dago eta ahal dugun beste animatuko dugu...

**Julian Portu**  
*Entrenatzaile ohia*

Nekeza izango den arren, lehen hamarren barruan sartuko da.

## Igeri Elkarteak bigarren

Begarako *Igeri Elkarteak* bigarren postua lortu zuen joan den astebukaeran Bergaran jokatuako Gipuzkoako Txapelketan, mutiletan bigarrenak eta nesketan berriz, bosgarrenak sailkatu ondoren. Horrez gain, Iñigo Gallastegi, Kepa Irizar, Nora Olabide eta Leire Zeziagak hainbat domina lortu zituzten. Aipatzekoa da txapelketaren antolaketa bikaina eta *Jesus Jauregi* Elkarteko entrenatzaileak jasotako omenaldia. *Victoriano Gallastegi* alkateak Gipuzkoako Igeri Federazioaren urrezko insignia jarri zion urteetan zehar gure herrian igeriketaren alde egindako lanagatik.



**ARRASATEARRA**

Gure berezitasuna bazkariak.  
Eguneko menua daukagu.

**Taberna**

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

**GURIDI** Altzariak

Era guztietako altzariak

Artakale 8, Tfnoa: 76 31 02





### 1.981ko Santo Tomas/San Juan Bosco eguna

**F**esta egun handia izaten da urtarrileko azken ostirala Institutuan eta Lanbide Eskolan ere. Lehendabizikoek Santo Tomas eguna ospatzen duten bitartean, Elementalekoek San Juan Boscoren omezko jaia izaten dute egun horretan.

Ikasleek prestatuturiko jaialdi bikainak, kirol finalak, krossa, txokolatada... eta beste hainbat ospakizun egiten dira bi ikastetxeotan. Bazkaltzeko zein afaltzeko berriz, klaseka biltzeko ohitura dago. Juergan goizean goiz ekin eta gauerarte.

Ia guztiz galdu bada ere, ohitura handia zegoen orain urte batzu ikasle guztiak disfrazatuta joateko. Imanol Iriagarai Institutuko irakasle eta argazkilari ofiziala zenak 80-81 ikasturtean UBI ikasten ari zen *gangster* taldetxo hau erretratatu zuen bere *maltzurkeriak* egiten hasi aurretik.

Ezkerretik eskumara: Martin Garitano, Juan Mari Vicente "Bix", Miguel Idarreta, Patxi Palomares, Andoni Narbaiza, Imanol Larrañaga eta Luis Javier Martinez "Pabli".

Argazkia: Imanol Iriagarai

**MEMESA**

**IRIMO**

**SKF**

**phonon**

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta





**ETXEBIZITZA**

Pisua salgai, garaje eta guzti. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. ☎ 76 42 52 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Antzuolan Pisua erosi-ko nuke. ☎ 76 62 36.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Etxebizitza salgai San Lorentzo 25ean. ☎ 76 31 35.

Pisu txiki edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 32 70.

**SALDU-EROSI**

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. **Manuaia eta automatikoa.** Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

CX 2.600 A ATARI bideo-jokuak erdi-prezioan salgai. 10.000 pezeta, ia berria. ☎ 76 17 18

Fondoko hiru eski pare salgai, egoera onean eta merke. Bata 6-8 urteko batentzat, bestea 8-10ekoarentzat eta bestea nagusi batentzat. ☎ 76 32 69

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50

Collie txakur-kumak salgai. ☎ 76 64 83. (17.30etatik aurrera).

PCrako joku original eta kopiatuak (100 inguru) salgai. Oso merke!! ☎ 76 17 85 (Asier).

Neskentzako bizikleta salduko nuke. *BH bolero rosa* modeloa. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. ☎ 76 13 14

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 19.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako disketara, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

4 metrotako ADRIA Karabana salgai. Oso egoera eta prezio onean. ☎ 76 13 12.

3 ateko AX GT-ko baka bat salgai. ☎ 76 24 81, iluntzeko 8etatik aurrera.

**LANA**

Arratsalde lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zailtzen. ☎ 76 54 82.

Emakumezko euskalduna behar da haurrak zailtzeko. ☎ 76 02 57.

Neska euskaldun bat behar dut etxeko lanak egiteko eta haur bat zailtzeko. ☎ 76 12 53.

Emakumezko euskaldun batek etxeetan interina lan egingo luke. ☎ 76 21 33.

**Hildakoak**

*Francisco Irizar Zaldibia* urtarrilaren 24ean, 87 urte  
*Candida Aizpiri Arrieta* urtarrilaren 24ean, 83 urte  
*Jose Ramon Rocha Colina* urtarrilaren 24ean, 73 urte  
*Prudencio Redondo Rodriguez* urtarrilaren 28an, 73 urte  
*Roman Lizarralde Ezpeleta* urtarrilaren 28an  
*Manuel Gomez Marquez* urtarrilaren 30ean, 47 urte

**Jaiotakoak**

*Ainara Sanchez Pescador* urtarrilaren 20an  
*Asier Lazpiur Barrainkua* urtarrilaren 22an  
*Aitor Miner Herran* urtarrilaren 24an

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

**anezka**

**Beharapenetan gaude!!**

Espolola 8, Tfnoa: 76 59 25



# JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



MANGADO  
VOCHOA

ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorentzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA

## U.N.E.D

### Bergarako Ikastetxe Elkartua

## MINTEGI eta IKASTARO IREKIAK

- **"KUATERNARIOA EUSKALERRIAN"** (1.992ko otsailetik apirilera)  
Azkenengo bi milioi urteetako giza eboluzioa eta ingurune fisikoa.
- **"BIZITZAREN GERTAKARIAK.GIZARTE IKERKETARAKO TEKNIKA BAT"**  
(1.992ko otsaila)  
Aitorpen eta historia pertsonalaren garrantzia Giza Zientzietan. Ikerketa teknika berri bat.
- **"DENDARIANTZAKO GESTIO IKASTAROA"** (1.992ko otsailetik apirilera)  
Merkataritzaren alderdi juridiko, laboral, fiskal eta finantziakoen teoria eta praktika.
- **"ZERGAK"**. (1.992ko otsailetik apirilera)  
Zergak ezagutu eta haiek kitatzen trebatzeko.
- **"TESTUA: ULERKUNTZA ETA SORMENA"** (martxoa-apirila, 1.992)  
Testu literarioen sorkuntza eta itzulpenaren arazora hurbilketa. Gaur egungo testu azterketa arautegiaren berriskutapena.

**INFORMAZIOA:** Bergarako UNED, S. Martin Enparantza. BERGARA. Tfnoa: 76 13 42 / 43 Faxa: 76 27 21.